

TOLOSALDEKO ETA LEITZALDEKO hitza info

Ostirala, 2012ko uztailaren 27a. IX. urtea. 2.392. zenbakia. tolosaldea.hitza.info

Olaberria eta Fernandez beste domina baten bila doaz Olinpiar Jokoetara

Leire Olaberria

Txirrindularia

«Ez dut domina lortzeko antsietaterik, baina egun horietan dominarik izango ez banu bezala borrokatuko dut»

Xabi Fernandez

Nabigatzailea

«Volvo Ocean Race probaren eraginez bizkarrean zuntz-etendura txiki bat dut, baina gogotsu goaz, eta hori da garrantzitsuena»



Leire Olaberria eta Xabi Fernandez, orain lau urte eskuratutako dominak eskuetan dituztela. BASQUE TEAM-ASIER IMAZ

Lizasok eta 'Urki'k sega apustua zehaztuko dute, gaur, Tolosan

Asteasuko Lizasok desafioa bota zion orendaindarrari eta Kantabriko hitzordua jarri; 'Urki'k baiezkoa emango dio, baina beste baldintza batzuk nahi ditu **07**

Irailaren 15ean izango da Bonberenea Sutan jaialdia

Berri Txarrak, Matxura eta Gose entzun ahal izango dira; abuztuaren 1etik aurrera erosi ahal izango dira sarrerak **05**

Udako oporraldia

Lantaldearen udako oporraldia dela eta, TOLOSALDEKO ETA LEITZALDEKO HITZA-ren hurrengo zenbakia irailaren 4an jasoko duzue.

Kuadrillen arteko baltsa jaitsiera ikusi ahal izango da, gaur, santioetan

Villabonako jaietan erretiroa hartuta daudenak izan zuten protagonismoa, atzo; biharko Erromeri Eguna euskal jantziekin joateko eskatu dute **06**



Erretiratuen bazkaria egin zuten, atzo, Txermin ikastolaren azpian. A. IMAZ

FUNERARIA VASCONGADA
EHORZKETAK
902 402 900
www.funerariavascongada.com



Leire Olaberria eta Xabi Fernandez dira Londresko Olinpiar Jokoetan Tolosaldeko ordezkariak; ikaztegi-tarrak bigarrenez hartuko du parte joko hauetan, Pekingoetan brontzea eskuratu ostean. Lau urte hauetan ez du ilusiorik galdu, eta abuztuaren 2an joango da Londresera. Ahalik eta ondoen borrokatzen saiatuko da.

Leire Olaberria • Txirrindularia

«Lau faborito daudela garbi dut, baina nik ahalik eta gertuen egon nahi dut»

Eneritz Maiz ikaztegieta

Leire Olaberria (Ikaztegieta, 1977) txirrindularia Mallorkan dago azken entrenamenduak egiten. Pekingo Olinpiar Jokoetako eskarmentua duela, abuztuaren 2an egingo du Londreserako bidea. Abuztuaren 6an eta 7an lehiatuko da, domina eskuratzeko helburuarekin.

Zer moduz aurkitzen zara?

Urtea nahiko zaila izan da. Osasun aldetik ez naiz oso gustura ibili. Munduko Txapelketa apirilean izan nuen, eta atsedean txiki bat hartu nuen. Olinpiar Jokoen prestaketarako osasuna baino ez nuen eskatzen, eta alde horretatik gauza guztiak ondo joan zaizkit. Prestaketa nahi nuen bezala egin dut, eta fisikoari dagokionean entrenamenduei ondo erantzun diet.

Eta buruari dagokionez?

Psikologikoki proba honi energia askorekin egin behar diozu aurre. Momentuz lan asko egiten ari gara, eta energia egunetik egunera doa. Azken egunetan lan bolu-mena jaitsiko dut, eta orduan ateratzen da energia guztia, eta lehiatzeko prest zaude. Prestaketarekin oso pozik nago, eta Pekinen puntuaketa aritu nintzen eta orain proba ezberdin batean hartuko dut parte. Proba oso berezia da. Ez da proba bakarra, baizik eta sei proba ezberdin egin behar ditut eta zailtasun nahiko handia du. Asko gustatzen zaidan proba da, baina egin aurretik ezin duzu inongo posturik ziurtatu.

Askotan lasterketa txar batek sailkapen orokorrean aukera dezente kentzen dizkizu. Gauza guzti hauek garbi izanik, ahal nuen ondoen eta gogorren aritu naiz lanean.

Nola ikusten duzu omnium proba?

Nire ikuspegitik, erlojuaren aurkako proban lehen bost edo sei postuetan ibiltzea nahi eta nahiezkoa izango da. Eta nire ustez, nire denborek, postu horietan ibiltzeko aukera emango didate. Emaizta borobiltzeko, berri, taldekako probetan ondo aritzea nahitaezkoa da. Honek duda gehiago sorrarazten dizkit, baina ez niri bakarrik, baita nire aurka-

«Ez dut ilusiorik galdu, eta dominarik ez banu bezala borrokatuko dut Londresen»

rirei ere. Probatuko bat kanporaketarena da, eta oso zaila da denontzat. Azkenean proba honek dena kentzen edo dena ematen dizu. Ez dakit justizia egiten duen, baina horrela onartu behar dugu.

Nolakoa izango da zuen proba, eta noiz izango dituzu?

Omnium probaren barruan, abuztuaren 6an, arratsaldean lehen hiru probak izango ditut: itzuli bateko proba, puntuaketa eta kanporaketarena. Hurrengo egunean, goizean, jazarpenekoa eta arratsaldean scracht-a eta 500 metroko proba egin beharko ditugu. Scracht-era iristerako gauzak

nahiko garbi egoten dira, baina sailkapena bideratuta duzula iruditu arren, askotan scracht-arekin hankaz gora jartzen dira. Eta azkenean 500 metroen proba da postu bat gora edo beheara egiten duzuna. Zerbait jokoan baduzu, oso proba garrantzitsua da, eta era berean oso proba esplosiboa da.

Aurkariak ezagutzen dituzu?

Bai, asko ezagutzen gara. Proba aldatu ziguten, eta azken bi urteak elkarrekin daramatzagu lehian. Egindako lana ikusita, nik lau faborito ikusten ditut. Orain arteko lana oso sendo egin dute, eta Munduko Txapelketan ere oso lan ona egin zuten.

Duela lau urteko dominarekin erroka altu jarria duzu. Londresko Olinpiar Jokotarako zein helburu jarri diozu zeure buruari?

Ez dut uste erroka altu jarria dudarik. Momentuan gai izan naizen gauzak egin ditut. Oso garbi daukat Olinpiar Jokotako domina bat izatea zein zaila den. Lehiatzen nagoen jendearen artean bada munduko txapelduna dena, munduko errekorrak dituen, baina olinpiar domina falta zaiona. Beti esan izan dut zorioneko sentitzen naizela hori bizitu ahal izan dudalako. Horrek eman dit indarra beste lau urte hauetan lanean jarraitzeko. Puntuaketa oso proba irekia izaten da, eta ni ez nengoen faboritoen artean, baina lasterketa horrela eman zen.

Eta aurten faboritoen artean ikusten duzue burua?

Aurtengo lana ikusita ez nago faboritoen artean. Aurreko urteko lana izanez gero, domina horien jokoan ikusiko nuen nire burua. Orain oso garbi daukat lau faborito daudela, baina nik beraiengandik ahalik eta gertuen egon nahi dut. Egun horretan norbaiti hanka sartzea bururatzen bazaio, berriro ere lehian ahalik eta gertuen ibiltzen saiatuko naiz. Askotan jendeak zein postuarekin konformatzen naizen galdetzen dit, eta momentuan ez naiz inongo postuarekin konformatzen. Erlojuaren aurkako probetan nire denborarik onenak egiten baditut, taldeko probak ondo egiten baditut eta



GARI GARAJALDE/ARGAZKI PRESS

laugarren egiten badut, bada seinale izango da besteak lanean oso ondo aritu direla, eta nahiz eta nik onena eman postu hori egokitu zaidala.

Baina mina egingo du laugarren postuak, ezta?

Bai eta batez ere lehenengo egunean. Askok asko izurratuko du, zeren posturik okerrera da. Hain gertu izan duzu dena, baina nire denborarik onenekin bada proban oso maila altua egon denaren seinale izango da. Gorago edo beherago izan, postu hori onartu behar duzu. Kirolean gertatzen diren kontuak dira. Ahalik eta ondoen borrokatzen badut, lehen postuetan ibiltzeko zortea izan ohi dut. Itxaropen horrekin joango naiz, eta lau urte hauetan ez dut ilusiorik galdu. Olinpiar Jokotatik batzuk izugarriko motibazioa dira. Ez dut domina lortzeko antsietaterik, baina egun horietan dominarik izango ez banu bezala borrokatuko dut.

Eskarmentua baduzu, lasai zoz Londresera?

Bat lasai egoten da eguneroko lana ondo egin eta gorputzak ondo erantzuten duenean. Urte-ek eta eskarmentuak zure burua ezagutzen laguntzen dute. Or-

duan gaztetxoagoa nintzen, dena berria zen eta emozio pila bat nintzen gainean. Orain sasegatuago nago, baina ziur bezperako eguna oso luzea egingo zaidala. 48 ordu luzeak izango dira, baina emozio horiek sentintzea polita da.

Eta Olinpiar Jokoen ostean, non ikusiko zaitugu?

Pobra bukatu eta hurrengo egunean itzuliko gara. Prestaketa luzea izaten ari da, eta atsedean txiki bat hartuko dut. Emaizten arabera, hotzean pentsatu eta erabakiak hartu beharko dira. Pistako denboraldiak ez du askorako ematen, iraillean hasiko baita Munduko Kopa. Otsailera aurreratu dutenez eta lan asko egin dudanez, dudarik ez dut denboraldia egingo dudala.

↓ **Leire Olaberriaren proben egutegia**

■ **Abuztuak 6, astelehena.**

Omniumeko lehen hiru probak ditu: 17:08, 18:06 eta 19:18.

■ **Abuztuak 7, asteartea.**

Omniumeko azken hiru probak: 11:19, 17:07 eta 17:53.



**EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO**

KULTURA SAILAK DIRUZ LAGUNDUTAKO HEDABIDEA

Ibartarrak hirugarrenez hartuko du parte Olinpiar Jokoetan; Atenasen urrezko domina irabazi zuen, eta Pekinen, zilarra; Volvo Ocean Race proban parte hartu, eta ia atsedetik hartu gabe Londresera abiatu dira Xabi Fernandez eta 49er sailean bere bikotekidea den Iker Martinez hondarribitarra; «nekatuta» daude, baina domina irabazteko «gogoz».



MARIA MUJÑA

Xabi Fernandez • Nabigatzailea

«Ehuneko ehunean egon ez arren, etxera dominarekin itzultzea espero dugu»

na, egia da aldaketa handia dela. Beraz, gure txanda iristen denera arte entrenatzen ari gara ahal dugun guztia. Gainera, pasa den urte tik lan handia egina genuen, eta ontziak eta prestatuta genituen. **Lesioak ere izan dituzue. Zu, esaterako bizkarreko minez egon zara. Errekuperaturik al zaude?**

Gorputzaren nekearen ondorioz lesio eta min txikiak sortzen joan zaizkigu, eta hori ere nahikoa traba izaten ari da gure entrenamendurako. Bizkarreko mina izan nuen, eta hori baretu zen, baina, okerrena zera da, dortsalean zuntz-etendura txiki bat dudala. Hori errekeruperatzea ez da oso erraza, eta egun batzuk geldirik egon beharra izan dut. Etendura, dena den, oraindik hori da, baina arraunketa hasteko egun batzuk geratzen dira, eta egun horiek errehabilitazioan emango ditut, eta ahal dudanean, nabigatzen. Hor ari naiz, beraz, guztia erlojuaren aurka egiten, gure txanda iristen denerako prest egoteko.

Datorren astelehenerako erabat errekeruperaturik izango zarela uste al duzu?

Errekuperatuta gotea espero dut. Ehuneko ehunean, ziur ez naiz egongo, erabat sendatzeko ez baitut nahikoa denborarik izango. Beraz, lasaigarriak hartuz ibili beharko dut. Pixka bat sufritzea tokatuko zait aste honetan.

Animoz, berriz, indartsuago al zoaz?

Gogotsu goaz, eta hori da garrantzitsua. Joko hauetarako prestatuta ez dugu oso ohikoa izan, berriki ontzi handietan nabigatetik baikatoz. Baina, era berean, horrek freskotasuna eta gogo handia eman digu arraunketa honetarako. Beraz, galtzeko gutxi

dugu, ezin baita gehiegi espero gainean dugun nekearen ondorioz, eta irabazteko berriz, asko. Gainera, ez dugu ahaztu behar Volvo Ocean Race proban parte hartu eta gero, 2010eko munduko txapelketa gure irabazi genuela, beraz gauza bera gerta daiteke.

Aurreko bi jokoetan dominarekin itzuli zarete. Horren ondorioz, presioa handiago al da?

Bai. Guk gure buruarekiko dugun presioa handia da. Lan ona egin nahi dugu, eta ahal bada domina etxera eraman. Hori da gure helburua. Lortzen badugu oso pozik joango gara etxera, eta ez badugu lortzen, penaz joango gara.

«Gauden egoera kontuan izanda, galtzeko gutxi dugu, eta irabazteko asko»

baina badakigu helburu oso zaila dugula jarrita.

Aurkariak ezagutzen al dituzue?

Ia gehienek ezagutzen dugu elkar. Maila handia dago, aurkari gogorak dira, eta ezagutzen ditugu gure aurkari zuzenak direnak.

Nola izango da zuen parte hartzea?

Hilaren 30ean hasten gara gu, eta abuztuaren 8ra arte ariko gara. 16 arraunketa saio izango dira, eta arraunketa saio izango dira, eta bera erabakiko dira irabazleak.

Zaleen babesa horrelako uneetan garrantzitsua izango da, ezta?

Jendea gurekin dago, eta jende asko dagoela gurekin dugu begira uste dut. Guk espero dugu ondo egitea bai guregatik, bai eta zaleengatik ere. Babes mezu ugari jasotzen ditugu. Esaterako, nire lesioengatik une zailak igarotzen ari naizenez, jende askok adierazi dit babesa eta galdetu du ea ondo

nagoen. Iruditzen zait Euskal Herrian jende askok jarraituko dela gure parte hartzea, beste euskaldunena bezala. Jendearen babesak asko poztzen gaitu eta indarra ematen digu, asko eskeretzen dugu.

Inaugurazio ekitaldian Espainiako bandera ematea egokitu zitzaizun, baina ezin zenuela parte hartu esan zenuen.

Palmaresarengatik, Rafa Nadal len lekua gure bete behar genuen, baina, gure ezinezkoa zitzaigula joatea argudiatu genuen. Dena den, nik ez diot inolako garrantzirik ematen kontu horri.

Dotorea iruditzen al zaizu Espainiako selekzioaren jantzia?

Herrialde bakoitzak edo norbaitek erabaki behar du ze arropa eraman, eta nire ustez, kirolariok ez gaude hori kritikatzeko. Badi-rudi kirolari askok denbora libre ugari duela, ze ni ez naiz pentsatzen jarri polita edo itsusia den. Berdin zait, jantzi egin behar dugu, eta kitto.

Olinpiar Jokoak hasi baino egun batzuk lehenago amaitu duzue Volvo Ocean Race proba. Hura irabaztear izan zarete, baina azken unean guztia hankaz gora jarri zitzaizuen.

Pena handia sentitzen dugu. Irabazteko kokapena izan dugu ia proba osoan, eta azken hilabetean gauza asko okertu zen. Azkenean, laugarren amaitu dugu. Ez gaude pozik, baina, behintzat, proba oso gogorra izan dela kontuan hartuta, lan ona egin dugunaren sentsazioarekin geratu gara.

Luzaroan ikusiko zaitugu ontzi gainean?

Oraingoz, bai. Gainera, badituzte proiektu edo gauza gehiago, baina ikusiko dugu zer ateratzen den.

Iñigo Terradillos Ibarra

Bere aitarekin eta anaiarekin hasi zen arraunean. Txirindularitzarekin ere ausartu zen, Iker Martinezek 49er ontzian sailean berarekin bikotea osatzeko proposatu zion arte. Urte batzuk geroago, 2011n nabigatzaile onenari saria eskuratu du bikote honek. Azken egunetako minak eta lesioek egun txarrak igaro arazi badizkiote ere, Xabi Fernandez (Ibarra, 1976) «gogotsu eta ilusioz beterik» dago, eta Londresen euren hirugarren domina lortzea baino ez du buruan.

Zer esanahi du zuretzat Londresen lehiatzeak?

Olinpiar Joko batzuetan parte hartzea gauza handia da. Arraun-

keta desberdin bat da, oso garrantzitsua, eta gauza asko daude jokoan. Horregatik, ilusioz beterik gaude.

Volvo Ocean Race proba bukatu eta atsedetik hartu gabe Londresera joan zarete. Fisikoki nola zaudete?

Proba duela bi aste bukatu zen, beraz, nabari da ez gaudela ehuneko ehunean. Volvo Ocean Race proba oso gogorra izan da, eta nekatuta gaude, beraz, zaila izango da, baina gu saiatuko gara.

Gainera, Olinpiar Jokoetan beste ontzi batekin lehiatuko zarete. Ez al duzue denbora gutxi izan ontzira egokitzeko?

49er klaseko ontzi txiki hauetan 14 urte daramatzagu nabigatzen Ikerrek eta biok, eta horrek esperientzia handia eman digu. Bai-

↓ Xabi Fernandez eta Iker Martinezen proben egutegia

- **Uztailak 30, astelehena.** 49er klaseko 1. eta 2. lasterketak: 13:00.
- **Uztailak 31, asteartea.** 49er klaseko 3. eta 4. lasterketak: 13:00.
- **Abuztuak 1, asteazkena.** 5. eta 6. lasterketak: 13:00.

- **Abuztuak 2, osteguna.** 49er klaseko 7. eta 8. lasterketak: 13:00.
- **Abuztuak 3, ostirala.** 49er klaseko 9., 10. eta 11. lasterketak: 13:00.
- **Abuztuak 5, igandea.** 12. eta 13. lasterketak: 13:00.

- **Abuztuak 6, astelehena.** 49er klaseko 14. eta 15. lasterketak: 13:00.
- **Abuztuak 8, asteazkena.** 49er klaseko dominen borrokarako lasterketa jokatuko dute. Aurreko saioak ez bezala, 14:00etan hasiko da azkena.

Iragarki laburrak

SALGAI

■ **Etxea.** Bidegoian, Goiaz. Aurrera paregabea!! Eraikuntza berriko etxe atxikia salgai. Izkinneko! Portxe, terraza eta lora-

tegi ederrarekin. Estreintzeko, material oso onak. 330.000 euro. Interesatuak dei dezatela ondorengo telefono zenbakira: 627 911 545.

 **Gutuna**

Argitu kontuak!

Mikel Belloso Gazteluko alkatea komunikabideetan azaldu da Udaberri Taldetik egin dugun salaketaren ondoren.

Urbanizatutako partzela baten salmentaren ondorioz, udal ondare galera handia salatu dugu alkatearen eta J.J. Otegi eraikitzailearen mesedetan. Horretaz gain, kontuak argitzeko eskatu dugun bakoitzean udalaren ezezko borobila ere salatu dugu.

Mikel Belloso alkateak zer dio honen inguruan? Batzoki batean asmatutako estrategia bat dela, informazio guztia ikusi nahi duenaren eskura dagoela, oso gaiztoak garena eta herria zatitu nahi dugula gezur eta datu faltuekin.

Datu faltuak dio... Bost hila-bete daramatzagu urbanizazio hortako kontuak argitzeko eskatzen, zenbat diru galdu den eta partzela hori hain merke zergatik saldu den galdetzen. Denen eskura dauden txosten teknikoek ez baitute hori argitzen. Eskatu dugun gauza bakarra kontuak argitzea da. Bilduko udal gobernua diru publikoa arduraz eta zintzotasunez kudeatzeko asmoa izan balu pauso hori aspaldi emana izango zuen.

Bitartean, Mikel Belloso alkateak bere etxea ziztu bizian altxatu du, denborarik galdu gabe, berarentzat herri hontan lehen-tasuna berak eta bere etxeak duela erakutsiz. Hain azkar altxatu du, obra baimenik gabe egin duela.

Borondate ona, indarrak metatzea, herrigintzan lan egitea moduko hitz politikak erabiltzen ditu. Benetan hitz horietan sinesten duena aspaldi arduratuko zen herriari kontuak garbi erakustez, behin eta berriro, beharrezkoa balitz, zalantza guztiak argitu arte, bere eta bere zinegotzien zintzotasuna inork dudatu ez zezan. Aldiz, Gazteluko Bilduk ez du erantzun nahi eta herriari informazio ekonomikoa gordetzen dio.

Gure alkatea den Mikel Belloso, zinegotzi diren Patxi Iturriaga eta Aitziber Barandarin eta tartean dauden pertsona gehiago prebarikatzen ari direla uste dugu.

Herriari errespetua galdu diote eta ez dute merezi gure udala kudeatzen uztea. Nahikoa da!

Kontuak argitzeko eskaerei emandako ezezkoen ondorioz alkatearen eta Bilduko udal gobernua dimisioa eta gestora bat osatzea exijitzen dugu orain!

■ **Izaro Goikoetxea.** Udaberri Taldeko zinegotzia. Gaztelu.

Goi mailako abesbatza musika, Santa Klara komentuko elizan

CoroPiccolo Ganbera Abesbatzak kontzertua emango du asteartean, Tolosako Orfeoia gongonbidatuta

Imanol Garcia Landa Tolosa

Alemaniaro Karlsruheko CoroPiccolo Ganbera Abesbatzak, Tolosako Orfeoia gongonbidatuta, *Tonos Angelicales* izeneko kontzertua eskainiko du datorren asteartean, hilak 31. Tolosako Santa Klara komentuko elizan izango da emanaldia, 20:30ean. Aurten 400 urte betetzen dira klaratarrek Tolosan komentua eraiki zutela, eta ospakizun horren barruan antolatu dute kontzertua. Tolosako Orfeoitik azaldu dutenez, goi mailako abesbatza da Santa Klaran entzun ahal izango dena.

CoroPiccolo Ganbera Abesbatza hainbat kontzertu ematen ari da Europan zehar eta Tolosakoa



CoroPiccolo Ganbera Abesbatza, promoziozko irudi batean. HITZA

horietako bat izango da. Emanaldian Barrokoko maisuen eta konpositore erromantikoen obrakin batera gaur egungo konpositoreen musika modernoa eskainiko dute. Egitarauan Vulpius eta Schein moduko Barrokoko maisuen obrak eta Rheinberger, Men-

delssohn edo Reger moduko konpositore erromantikoen obrak izango dira. Entzuzko diren obrarik modernoak Martin, Eben eta Rautavaara konpositoreenak dira. Atsedendietan Theresa Fritz txirula jotzaileak txirularako zenbait pieza joko ditu.

Bidaniako jaietan lehenengo aldiz herri afaria frontoian egingo dute

I. Garcia Landa Bidania

Bidaniako San Bartolome jaiak abuztuaren 23tik 26ra izango da, eta aurten lehenengo aldiz herri afaria frontoian egingo dute. Abuztuaren 23an izango da eta txartelak salgai daude bihartik Kontseju eta Dendale tabernetan. Helduek 25 euro ordaindu behar dituzte eta haurrek 12 euro. Afa-

ria Anjel Peñagarikano eta Julio Soto bertsolariak alaituko dute.

Jaien egitarauaren ekitaldi nagusienetakoa Bidaniaren eta Errezilen arteko giza proba izango da. Abuztuaren 24ean izango da hori.

Egitarauaren beste ekitaldi interesgarria zaldi gainean abilezia erakustearrekin zerikusia du, izan ere, abuztuaren 26an Euskal He-

rriko Zaldi Team-Penning Txapelketa izango baita. Bi saio izango dira: lehenengo goizez eta bigarrena arratsaldean.

ZUZENKETA: Abuztuko jaien inguruan herenegun HITZAK argitaratutako gehigarrian, Bidaniako jaiak buruzko albistean, egitaraua zuzena zen, baina ez albistearen testua.

Irudia Tolosa



EUSKARAZ BIZI LUDOTEKAN, AZKEN EGUNA

Laskorain Ikastolak, Euskaraz Bizi proiektuaren barnean, udako ludoteka antolatzen du 2 eta 8 urte arteko haurrentzat. Guztira 240 haur izan dira, 30 begiralekin. 8 eta 12 urte bitartekoak Euskaraz Bizi udalekuean parte hartu dute. «Euska-

raz ikasteaz gain, euskaraz bizitzeko aukera egiteko bultzada moduan sortu zen Euskaraz Bizi proiektua», ikastolatik azaldu dutenez. Gaur amaituko da ludoteka, azken eguneko festa eta hamaiketakoarekin. HITZA

Herrira mugimenduak elkarretaratzeak deitu ditu gaurko

I. Garcia Landa

Herrira mugimenduak dei egin du beste behin, gaur hilabeteko azken ostirala izaki, elkarretaratzea egitera euskal presoen eta iheslarien eskubideen alde. Kontzentrazioak ohiko herri eta lekuetan izango dira.

↓ Azken ostirala

GAUR

- **Aduna.** 20:00etan.
- **Alegia.** 19:30ean.
- **Amezketak.** 19:30ean.
- **Anoeta.** 19:30ean.
- **Asteasu.** 19:00etan.
- **Berrobi.** 19:30ean.
- **Ibarra.** 19:30ean.
- **Irura.** 19:30ean, plazan.
- **Asteasu.** 20:30ean, plazan.
- **Ikaztegieta.** 20:30ean.
- **Leaburu.** 20:15ean.
- **Lizartza.** 20:00etan.
- **Orendain.** 20:00etan.
- **Tolosa.** 19:30ean.
- **Villabona.** 20:00etan.
- **Zizurkil.** 20:00etan.
- **Leizta.** 20:00etan.

→ Laburrak

Bertso afaria antolatu dute Alurtxiki elkarteak

TOLOSA » Urkizu auzoko Alurtxiki elkarteak bertso afaria egingo dute abuztuaren 10ean, 21:00etan. Parte hartuko duten bertsolariak Unai Agirre eta Hagin Rezola izango dira. Izena emateko epea abuztuaren 6a arte da eta 690 06 76 45 telefono zenbakira deitu behar da.

Pipirilagun izateko deia egin du Asvineneak

ADUNA » Asvinenearen proiektuan lagundu nahi dutenei pipirilagun izateko gonbita egin dute, «Asvinenea eta bere helburuak aurrera eramateko». Hilabetean 5 euroren truke Pipirilaguna izateko aukera dago. Horrela, Asvinenean antolatzen diren emanaldietako (kabaretak, Poltsiko Antzerki Lehiaketa...) sarrerak doan izango dira, eta aldi berean Asvinenearen proiektua «bizirik mantentzeko laguntza» emango da. Informazio gehiago jasotzeko, asvinenea@gmail.com helbidera idatzi daiteke.

Datorren astetik aurrera salgai izango dira Bonberenea Sutan-eko sarrerak

Irailaren 15ean izango da jaialdia, eta Berri Txarrak talde nafarra izango da kartel burua

Itzea Urkizu

Bonberenea Sutan jaialdia 2008an lehenengoz antolatu zuten geroztik, hirugarrenez ospatu dute aurten jaialdia, datorren irailaren 15ean. Eskainiko dituzten kontzertuetarako sarrerak, abuztuaren 1etik aurrera eskatu ahal izango dira.

Urte osoan zehar, zuzeneko musika emanaldiek tarte nabarmena izaten dute Bonbereneako jardueren agendan. Magnetofono, kasete, disko biragailu, CD nahiz MP3aren bidez norberak etxean behin eta berriro entzundako abestiak bestelako dimentsio batean gozatzeko aukera hori, beraz, ostiral eta larunbateroko eskaintzatik haratago joango da irailaren 15ean, punta-punta bost talderen emanaldiekin.

Euskal musikariak nagusi

Aurreko bi jaialdietan bezalaxe, irailaren 15ean ere, euskal musikak tarte nabarmena izango du Bonbereneako futbol zelaian, Andaluziako musikarekin batera.

19:30ean irekiko dituzte ateak, eta emanaldiak 20:00etan hasiko dira.

Diska argitaratu berri duen



Hirugarrenez antolatu dute, aurten, Bonberenea Sutan jaialdia. Irudian, 2010ean ospatu zutena. HITZA

Glaukoma talde tolosarrak abiaraziko du 2012ko Bonberenea Sutan jaialdia, euren rap-reggae doinuekin.

Matxuraren txanda izango da jarraian. Euskal Herriko zenbait talde entzutetsutako musikari bildu, eta elkarrekin gauzatutako proiektua da Matxura. Rock doinuek nagusituko dira eurekin, kaosa eta sinkronizazioa uztartuz, eta iaz Bonberenea ekintzak ziguiluarekin argitaraturiko diskoa izango dute hari nagusia.

Jaialdiko kartel-burua Berri Txarrak talde nafarra izango da. Pasa den otsailean izan zen, azkeneko, Gorka Urbizuren hirukotea Bonberenean, eta datorren

irailaren 15ean ere, *Haria* zazpi-garren lanaz gain, beren ibilbideko hainbat kantu eskainiko dituzte.

Laugarren kontzertuak rocka eta indie-ekarriko du, Jerez de la Frontera-ko (Cadiz, Espainia) G.A.S. Drummers taldearen eskutik. Hamarkada bat baino gehiago daramate musikaren munduan, eta antolatzaileen arabera, jaialdian ezustea eman dezakeen taldea da andaluziarra.

Azkenik, Bonberenea Sutan 2012 borobildu, eta behar bezala amaitzeko, trikiti doinurik tradizionalenak gitarra eta erritmo elektronikoekin uztartuko ditu Gose taldeak.

Aipatzekoa da, Bonberenea etxe barruan Olarius & Brothers Rock DJak ariko direla, eta boka-diloak ere salgai jarriko dituztela, bertaratzen diren guztientzat.

Sarrerak salgai abuztuan

Datorren abuztuaren 1etik aurrera, sarrerak eskuratzeko aukera izango da, 15 euroren truke.

Antolatzaileek bi bide eskainiko dituzte horretarako. Batetik, internet bidez eskatu ahal izango dira, sarrerak@bonberenea.com helbidera mezu elektronikoa idatzita. Era berean, Tolosan bertan zenbait salmenta puntu jarriko dituzte, tabernetan: Eguzki, Or-bela, Denak eta Meskal.

Gozogileen ogibidea, Tolosako turismo eskaintzan

Tolosaldea Garatzen-ek turismo esperientzia berria martxan jarriko du larunbatean, Gorrotxategirekin

I. Urkizu

Tolosako teila eta zigarrorxoak nola egiten diren ikusteko aukera eskainiko diete turista nahiz herritarrei, Tolosaldea Garatzen-ek eta Gorrotxategik.

Bihartik hasita, eta turismo esperientziaren filosofiarekin jarraituz, gastronomiari, eta bereziki gozogintzari eskainitako eskaintza turistikoa izango da honakoa.

11:00etatik 13:30era bitarteko bisita izango da, eta lehenik eta behin Gorrotxategi Konfiteria museoa bisitatuko dute; txokolatezko kikara bat eskainiko diete parte hartzaile guztiei. Gero, Gorrotxategi familiako artisauro baten eskutik, teila eta zigarrorxoak egingo dituzte guztiek.

Lehen saioa bihar izango da, eta abuztuaren 25ean nahiz irailaren 29an ere errepikatu egingo dute bisita.

Helduek 19 euro ordaindu beharko dute, eta 4 eta 10 urte bitarteko haurrek, berriz, 9 euro. Erre-berbak Tolosaldea Tour-en egin beharko dira, 943 69 74 13ra deituta, edo tour@tolosaldea.net-etik.



harpidedun izateak badu saria SARIDUNAK

zozketa

1 Casa Julian

Bi lagunentzako bazkaria edo afaria
• PAGOLA LARRAÑAGA MAJOSE (TOLOSA)
 Santa Klara, 6 Tolosa
 Tel.: 943-67 14 17
www.casajuliandetolosa.com
 * Eskaera egiteko, bi hilabete



2 Ostatu Hernialde jatetxea

Bi lagunentzako bazkaria edo afaria
• MUJICA LOPETEGI, GARBIÑE (VILLABONA)
 Hernialde
 Tel.: 943-65 24 96
 * Eskaera egiteko, bi hilabete



3 Arbizu hestebeteak

Sorta bat
• IZAGIRRE ELIZEGI, ARANTXA (TOLOSA)
 Arbizu
 Tel.: 948-46 06 28
www.embutidosarbizu.com
www.euskalherrikoaplaza.com
 * Saridunak irailan jasoko dute sorta



4 Eureka! zientzia museoa

Bi lagunentzako bina sarrera
• GASTESI SAIZAR, LEIRE (TOLOSA)
• ARTOLA SANTAMARIA AINTZANE (TOLOSA)
 Mikeletegi, 43-45
 Donostia
 Tel.: 943-012478
www.eurekamuseoa.es
 * Saridunak, bina sarrera izango dituzte leihatilan, bi hilbetez



Parte hartzeko deitu edo idatzi: 902-82 02 40 / txokoa@hitza.info [harpidedunen kodea, izena, herria, eta zeineskaitzetan parte hartu nahi duzun garbi adierariz] Aste honetako astearte, asteazken eta ostegun goizean, nahi duzun orduan, Saridunak ostiralean argitaratuko ditugu.

harpidedun
TXOKOA hitza



Santioen bigarren egunean jubilatutako izan ziren protagonista nagusiak. A. IMAZ

Jubilatuek gazteen esku utzi dute jaietako protagonismoa

Kuadrillen arteko baltsa jaitsiera 12:00etan izango da, Onddo Gazte Asanbladak antolatutako bazkariaren aurretik

Asier Imaz Amasa-Villabona

Santio jaien bigarren egunean jubilatuek hainbat ekitaldiz gozatzeko aukera eduki zuten. Salbadora erretiratuen taldeko kideek eta Santiago egoitzako aitonamonek artista papera hartu zuten goizean. Berdura plazan, mai-tasun handiz eginiko eskulan eta margoak jarri zituzten ikusgai.

Herriko erretiratu guztien topaketa eguerdian izan zen, Txermingo ikastolan. Mahai inguruan eseri eta bazkari eder batez gozatzeko aukera izan zuten. Arratsaldean, karta joko zaleek, Mus Txapelketan parte hartu zuten, eta iluntzean, Oinkari dantza eskolaren emanaldiaz gozatzeko aukera izan zuten.

Gaur gazteek hartuko dute lekukoa, euren eguna izaki. 12:00etan kuadrillen arteko baltsajaitsiera egingo dute, eta ondoren, Onddo Gazte Asanbladaren eskutik bazkaria. Orkresta Nazionalek alaituko da arratsalde-

ko giroa, poteoan gazteek lagun izango baitira. Afaltzeko adorea duenak, txekor jatea eta sagardo dastatzea izango ditu Txermingo ikastolan, Zunbeltz elkartearen eskutik. 23:00etan hasiko dira herriko taldeen kontzertuak, ostiralari agur esateko.

Jaietako egitaraua, bere osotasunean, www.villabona-aiztondo.hitza.info webgunean dago zintzilikaturik.

Artisau Azoka, bihar

Gipuzkoako artisauak bat egingo dute Amasa-Villabonako Malkar plazan hilaren 28an, bihar. Artisau Azokak lurraldeko hainbat eta hainbat artisau bilduko ditu bertan, eta herritarrek edo festaz gozatzera hurbiltzen direnek, Gipuzkoako artisauen lanak ikusteko eta erosteko aukera izango dute. Horrez gain, eskulanean lantze prozesua bertatik bertara jarraitzeko aukera ezin hobea izango da larunbatean, 10:30etik 14:30era bitartean.

Erromeri Egunera garaiko euskal jantziekin joatea eskatu dute

Oinkarik antolatu du euskal jaia herriko hainbat eragileren laguntzarekin, bihar, 17:30etik aurrera

A. Imaz Amasa-Villabona

Oinkari dantza taldeak Erromeri Eguna antolatu du Santio jaietan. Arratsaldean hasi eta goizeko ordu txikiak arte, dantzan erruz egiteko aukera egongo da Villabonan, bihar. Hori bai, dantza taldetik, garaiko euskal jantzi gerturatzeko gonbitea egin dute.

Erromeria ardatz izango duten ekitaldiak antolatzen, Oinkarik herriko hainbat eragile ondoan izan ditu: Behar Zana, Irrintzi, Zunbeltz, Uxo Toki eta udala. Guztiak, *Herri hau sortzen segi dezagun, euskaratik eta euskaraz...* lelopean aritu dira lanean.

Elkarlanean osatu dute egitaraua, eta emaitza, ez da nolanhikoa.

17:30ean hasiko da Erromeri Eguna, txaranga doinuekin. Ondoren, sagardo eta pintxo dastatzea etorriko dira. Bertan, ondorengo sagardotegiak egongo dira: Aburuza (Aduna); Alberro

(Hernani); Bereziartua (Astigarraga); Calonge (Igeldo); Goikoe-txea (Lizartza); Isastegi (Tolosa); Olaizola (Hernani); Petritegi (Astigarraga); Rufino (Hernani); Sarasola (Asteasu); Trabanco (Asturias); Urbitarte (Ataun); Urdaira (Usurbil); Zabala (Aduna); Zapiain (Astigarraga) eta Zelaia (Hernani). Pintxoak Garmendia Harategiak jarriko ditu.

Eztarria ongi busti ondoren, Laja eta Mikel trikitia astintzen hasiko dira, jendea dantzan jartzeko asmoz. Usadioak usadio, berriro ere sabelak hartuko du protagonismoa, bildotsa burruntzian prestatuko baitute. Txartelak ohiko lekuetan daude salgai, 25 eurotan.

Afalostean, bertsolarien txanda izango da. Amaia Agirre herritarra izango da gai-jartzailea. Erromeriari jarraipena Triki Ta Ke taldekoek emango diote, larunbatak igandearekin bat egingen duen uanean.

Garai batean, bikotea bilatzeko erromeria aitzakia proposa izaten zen. Euskal jantziak soinean, arratsaldea eta iluntzea dantzan, sabela bako, oinak eta burua arin... bikotea hartu eta Larrain Dantzarako une aproposa izango dira 02:30ak.

Erromeria Eguna, ordea, ez da

↓ Egitaraua

UZTAILAK 27, GAUR

- **10:30.** Haurrentzako arte tailerra. Basajaun murala egingo dute material berrerrabileriekin, Txermingo ikastola azpian.
- **12:00.** Kuadrilla arteko baltsa jaitsiera, udaletxe atzean. Onddo Gazte Asanbladaren eskutik. Bakotzak prestatutako baltsarekin.
- **14:00.** Bazkaria, Berdura plazan, Onddo Gazte Asanbladaren eskutik.
- **17:00.** Poteo kalejira, Orkresta Nazionalek antolatuta.
- **17:30.** DJ Thobben eta Lore Power ikuskizuna, haurrentzat, Arroako plazan.
- **19:00.** Erraldoi eta buruhandiak, trikitalariek alaituta.
- **19:30.** Txekor jatea eta sagardo dastatzea, Txermingo ikastolaren azpian, Zunbeltz elkartearen eskutik.
- **20:30.** Kafe eta likore dastatzea jubilatuentzat, Marie Brizard enpresaren eskutik. Jubilatuen biltokia izango da.
- **23:00.** Herriko musika taldeen kontzertua Errebote plazan, Margot, Lain eta Kantuki taldeen eskutik.

↓ Erromeri Eguna

UZTAILAK 28, BIHAR

- **17:30.** Kalejira Lizartzako Isk&bila txarangaren eskutik, Errebote plazan.
- **18:00.** Sagardo eta pintxo dastatzea.
- **18:30.** Laja eta Mikel trikitalariak.
- **21:00.** Afaria: bildotsa burruntzian. Isk&bila txaragarekin.
- **22:30.** Bertsolariak: Amets Arzallus, Andoni Egaña, Sebastian Lizaso, Maialen Lujanbio, Jon Maia eta Aitor Sarriegi. Gai jartzailea Amaia Agirre.
- **00:00.** Triki ta ke taldea.
- **02:30.** Larrain dantza herrikoia.
- **03:00.** Ingo al deu? taldea.

hor amaituko. Egitarauak hirugarren musika talde baten berri ematen du, Triki Ta Ke taldeak hasitako lanarekin jarraitzeko. Ingo al deu? musika taldeak erromeriari azken ekarpena egingo dio, 03:00etatik aurrera. Taldearen izena eta eguna beraren nondik norakoa kontuan hartzen baldin bada, ondorioa argia da: dantzarik egin gabe inor geldituko al da Villabonan, bihar?

BRONTXILLO Harategia · Itsaskide

943 69 68 23
Santio kalea, 4
- Villabona -

Santioak ondo pasatzen dira

Lizaso eta 'Urki' Kantabriko tabernan elkartuko dira, sega apustuaz hitz egiteko

Lizasoren desafioari erantzuteko prest dago 'Urki'; akordioa, ordea, zaila izango da, baldintzak tarteko

Asier Imaz

Juan Joxe Lizasok sega desafioa bota zion herenegun Jexuxmari Ormaetxea *Urki*ri. Asteasuarrak hiru aukera jarri zizkion mahai gainean, apustua gauzatze alde- ra. Hitzordua ere jarri zuen Lizasok, hilaren 27a, gaur, 21:30etik 22:00etara Tolosako Kantabriko tabernan. Sarrerak erdibana ba-

natzea eta galtzaileak irabazleari 3.000-5.000 euro ematea ere aipatu zuen. Apustua abuztuaren bukare aldean izango litzateke.

Juan Jose Lizasoren baldintze- kin ez dago erabat ados *Urki*, hala ere, gaur Kantabriko joango dela esan du Euskal Herriko txapelkunak. Hain zuzen ere, orendainarrak Euskal Herriko Txapelketako baldintza berdina nahi ditu, hau da, zorroztailearekin eta abantailarik gabe. Garai honetako belarra abantailak emateko egokiena ez dela dio *Urki*ri. Lizasok 51 urte ditu, eta adinean aurrera doala dio, apustua egiteko, beraz, garai egokia hau dela uste du. *Urki* 37 urte ditu,

↓ Sega apustua

LIZASOREN AUKERAK

- Norberak zorrozta ordu erdi-ko lana, eta beste horrenbeste, zorroztailearekin.
- Ordu t'erdiko saioa, zorroztailearekin, *Urki* Lizasori 100 kiloko abantaila emanda.
- Ordu t'erdiko saioa, zorroztailearekin, *Urki* Lizasori 200 kiloko abantaila emanda.

eta duela bi aste Euskal Herriko txapela irabazi zuen, hirugarren saikatu zen Lizasori 117 kiloko alde aterata.

XXIII. Joxean Tolosa Txapelketaren asteburuko lehiak

Gaur hiru partida jokatu dira 22:00etatik aurrera; sei norgehiagoka ikusteko aukera egongo da bihar

A. Imaz Amezketeta

Amezketako XXIII. Joxean Tolosa Pilota Txapelketaren bederatzigarren partida jokatu dira ondorengo bi egunetan. Lehen hirurak gaur lehiatuko dira, 22:00etan hasiko den pilota jaialdian.

Kadeteen mailan Zizurkilgo Erasunek Laso iruñarraren aurka jokatu du. Bigarren partida gazteen mailakoa izango da, eta bertan, Berrobiko Elustondo ariko da Imaz segurarraren aurka. Pilota gaua itxiko duen hirugarren partidan, nagusien mailakoa, Jaka lizartzarrak jokatu du. Aurkari bezala, Muguruza bergararra irtengo da kantxara.

Larunbatean, hilaren 27an, pilota partidak bi multzotan antolatuta dituzte amezketarrek. Lehen hirurak, 16:30ean hasiko den jaialdian jokatu dira, eta azken hirurak, 22:00etatik aurrera.

Arratsaldeko lehen bi partidak kadete mailakoak izango dira. Berako Martinezek Lasarteko Arteaga izango du aurkari, eta Amurrioko Arregik Berrobiko Zubiria. Azken partida gazteen mailakoa izango da. Olano aresorarrak Ugalde oiartzuarra izango du aurrean.

Afartzeko atsedendia hartu ondoren, pilotazaleak 22:00etan itzuliko dira frontoira. Kadeteak irekiko dute gaueko pilota jaialdia, kadeteek hain zuzen ere. Ikaztegiatiko Larreak Huarteko Sarasa izango du aurrean. Gazteen mailan, Iruñeko Cordonek Aramako Irribarriaren aurka jokatu du, eta nagusien mailan, Asteasuko Urbietak, Alegiako Artolaren aurka.

Aizpurua II.ak Juaristiren aurka jokatu du Previa Kutxaren finala

Finala irabazten duenak bost handiekin banakako txapelketa jokatzeko aukera irabaziko du

A. Imaz Tolosa

Aizpurua II.a tolosarrak Previa Kutxa 2012 Txapelketaren finala jokatu du, bihar, Juaristiren aurka. Erremonte jaialdia 17:00etan hasiko da Hernaniko Galarraga pilotalekuan, eta bertan, asteazkenean aukeratutako pilotekin ariko dira bi finalistak.

Aizpurua II.ak 133 gramoko pilota bat, 132ko bi eta 131ko bat aukeratu zituen. Aukeraketaren ondoren, sakearekin mina egiteko moduko piloten bila joan zela



Juaristi gorri, eta Aizpurua II.a urdinez, pilota aukeraketan. MAIALEEN ANDRES

azaldu zuen atzelari tolosarrak. Finala irabazteko favoritoa Juaristi zarauztarra den arren, Aizpurua II.a ezustekoa emanda sartu da finalean, eta aurrera jarraitzeko asmoz egongo da.

Finala irabazten duenak, banakako txapelketan parte hartzeko aukera edukiko du, bost handiekin batera, hau da, Ezkurra, Urri-za, Zeberio II.a, Urrutia I.a eta San Migelekin.

→ Laburrak

Helduen danborradan izena emateko deialdia

IBARRA › Ibarrako jaiak abuztuaren 22an hasiko dira, eta helduen danborrada 24an izango da, hau da, festetako ostiralean. Aurretik, ordea, ez dute entsegurik izango, egunean bertan egingo baitute; 18:00etan joango dira Azkue auzora entsegu orokorra egitera. Danborradan parte hartzeko zerrendan izena eman behar da, afarian egongo diren lagun kopurua jakiteko. Zerrendak herriko tabernetan jarri dituzte.

Motozaleen festa antolatu dute bihar, Cheyenne's-en

ANOETA › Eskualdeko motozale guztientzat festa bikaina antolatu dute bihar, hilaren 28an, Cheyenne's Radikal Saloonen. Arratsaldean hasiko da topaketa, 16:00etan. Ordu horretan *Kit*-a hartuko dute. Moto itzulia 17:00etan egingo dute, 19:30ean abiapuntura itzultzeko. Ordu horretan, aretoan kontzertua hasiko da, motozale guztien gozamenarako. 21:00etan mahaian eseri eta afaltzen hasiko dira, eta azkenik, 23:00etan, sari banaketa ekitaldia egingo dute. Egun guttiko txartela 25 eurotan jarri dute; *Kit*-arekin itzulia 10 eurotan, eta afaria eta kontzertua soilik, 15 eurotan.

Tolosaldeko eta Leitzaldeko HITZAn jarrita Gipuzkoako beste 4 Hitzetan DOAN

hilberriak
urteurrenak
eskertzak

HITZA Gipuzkoako bigarren egunkari irakurriena



≈ **26°**
≈ **18°**

GOIZA	EURIA
ARRATSALDEA	EURIA
BEROENA	23°
HOTZENA	16°

Argitaratzailea: Tolosa Herria Hedabideak S.M.
Lege Gordailua: SS-0398-03
Zuzendaria: Rebeka Calvo
Egoitza nagusia: Araba Etorbidea 5, atzea, Tolosa.
Telefonoa: 943 65 56 95. **Faxa:** 943 65 00 18
Leitza: Herriko plaza, 1. 687 410 118
E-posta: tolosaldean@hitza.info
Webgunea: tolosaldean.hitza.info

Zuzendariordea: Imanol Garcia Landa. **Kudeatzailea:** Jon Mujika.
Publizitate: 661 678 818 tolosa@bidera.eu
Tolosa: 687 410 082-687 410 033. tolosa@hitza.info
Villabona: 687 410 022. villabona-aiztondo@hitza.info
Anoeta: 687 410 022. anoeta@hitza.info
Ibarralde: 687 410 118. ibarralde@hitza.info
Alegialdea: 687 410 034. alegialdea@hitza.info
Leitza: 687 410 118. leitza@hitza.info

**Tolosa Herria
Hedabideak**

**BERTAKO
SM-ko kideak:**



**Galtzaundi
euskara
taldea**



eta Tolosaldeko
eta Leitzaldeko
beste 77 eragile

**Hitza-k
Bai
Euskarari**



'Hitza' diruz laguntzen duten erakundeak. Udalak: Aduna, Albiztur, Alegia, Altzo, Armezketeta, Anoeta, Areso, Asteasu, Baliarain, Belauntza, Berastegi, Berrobi, Bidegoian, Elduain, Hernalde, Ibarra, Irura, Larraul, Leitza, Lizartza, Orendain, Tolosa, Villabona eta Zizurkil

Hitza-ko bezeroen arreta zerbitzua (zalantzak argitzeko, harpidedun egiteko): **902820201**

Agurrak



Zorionak Oskar!

Zorionak abuztuaren 2ko partez.
Animo gutxi geratzen da eta! Alegiako lagunerekin partez, muxu bat.



Zorionak Iñigo!

Olinpiar Jokoekin batera heldu da zure urtebetetze eguna. Ondo pasa bikote Agurtzane, seme Sugaar eta bidean datorren Saioarse alabarekin. Ea aitaxo agertzen den, a zer nolako oparia. Urte askoan, txapeldunak zuek! Ibaratik ama Maria Pilar eta anaia Iosu.



Urte askoan!

Urte askoan Oskar, Joxe Mari eta Karlos (Amasa-Villabonako euskal preso politikoak).
Abuztuan urteak betetzen dituzte. Besarkada iraultzaile bana. Maite zaituztegu!

AGURRAK

943-65 56 95 tolosaldean@hitza.info

urtebetetzeak
urrezko ezteiak
ezkontzak
jaioberriak
jaunartzeak...

●●●● agurrak

**SAN
TIO
JAI
AK
2012**

murgildu SANTIO JAIETAN
euskaraz!
AMASA-VILLABONA Villabonako Udala